

NOLA BIHURTU TRAKTOREAK SUPERAUTO



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Maranello (Modena, Italia), 1958. Ferruccio Lamborghini (1916-1993) Ferrarri fabrikara hurbildu zen eta, kiroltako autoen zale amorratua izanik, Ferrari 250GT bat erosi zuen.

Mahastizain familia batean jaioa, Lamborghini laborarien lana errazteko nekazaritzaren mekanizazioaz kezkatzen hasi zen gaztetatik. Zeuzkan mekanika eza-gutzak baliatuz, hutsetik hasi eta punta-puntako makineria eta traktore enpresa eratu zuen denbora laburrean. Baina lanaz kanpo, traktoreak baino azkarragoak ziren ibilgailuak zituen gustuko.

Horregatik, 1958ko lehen bisita haren ondoren, Lamborghini gehiagotan joan zen Maranellora. Batetik, Ferrari gehiago erosi zituelako. Bestetik, auto horiek arazo mekanikoak zituztelako, nagusiki enbrageekin, eta konpontzera fabrikara bertara eraman behar zirelako. Ez zen hura Ferruccio Ferrarietako zeukan kezu bakarra. Auto onak iruditzen zitzaizkion, baina zaratsuegiak eta zakarregiak errepidean gustura ibiltzeko. Ibilgailuen barnealdeari zurrunegia zeritzon, eta saldu osteko zerbitzuak ere ez zuen asetzen traktore fabrikatzailea.

Antza, eragozpen horiek guztiak Enzo Ferrariri berari aurrez aurre jakinaraztea erabaki zuen Lamborghini. Eta Enzo Ferrari ez zuen kritika ondo hartu. Eztabaida horren askotariko bertsioak daude; baina bataren zein bestearen jenio bizia kontuan hartuta, ziurrenik ez zuten



Ferruccio Lamborghini, Lamborghini traktore baten gainean, marka bereko bi auto parean dituela.

hitz goxorik trukatu. “Traktore fabrikatzaile batek ez dit erakutsiko kirol autoak egiten” esan omen zion Ferraririk Lamborghini, edo “ezin duzu Ferrari baten konplexutasuna ulerti”.

Lamborghiniaren erantzuna kirol autoak fabrikatzen hastea izan zen. Lamborghini Trattori enpresa sortu eta hamalau urtera, 1963an, Lamborghini Automobili sortu zuen. Egoitza nagusia Sant'Agata Bolognesen jarri zuen, Ferrariren egoitzatik 30 bat kilometrora.

Urte bereko Turingo Automobil Erakusketan aurkeztu zuen Lamborghini 350 GTV, markaren lehen kirol autoa. Modelo berria Ferraria baino hobea zen Ferruccio kritikaturako alderdi guztietan. Bi marken arteko lehia hasi zen auto azkarren merkatuan; zirkuituetan, ordea, ez zen lehiarik izango, sortzailea bizi artean Lamborghini

markako autoek ez zuten sekula lasterketetan parte hartu. Ferrariak errepidera egokitutako lehiaketa autoak ziren; Ferruccioenak, aldiz, berariak errepiderako eta gidatzeaz gozatzeko luxuzko auto erosoak ziren, oso azkarrak izateaz gain.

1966an hirugarren modelo merkatu-ratu zuen, *Miura* izenekoa –Lamborghini zezenketen zale amorratua zen eta, horregatik, urrezko zezena aukeratu zuen markaren ikur-. Traktoreei bezala, motorra atzeko ardatzean ipintzea bururatu zitzaion eta, hala, superdeportibo genero berri bat abiarazi zuen.

1970eko hamarkadaren hasieran, traktoreen negozioa gainbehera hasi zenean, Lamborghini enpresa guztiak saldu zituen eta nekazaritzara itzuli zen, urte batzuk lehenago Umbrian erositako mahastietara ■



Fornikazioa: arkupean egiten dena

Fornix hitzak arku edo ganga esan nahi du latinez. Egun, garuneko eta baginak zati banari hala esaten zaie, forma hori dutelako, hain zuzen.

Antzinako Erroman prostitutak zuben, kalezuloen eta bestelako eraikinen arkupeetan bildu ohi ziren. Eta denborekin burdelei ere *fornix* esan zieten.

Jakina, arku edo bobeda horien azpian nahiz putetxe itxietan prostitutek eta bezeroek zeuzkaten harreman sexualak ezkontzaz kanpokoak ziren eta, horregatik, aurrerago, eliza katolikoak terminoa bekatzeko harremanekin lotu zuen: fornikazioa erabiltzen hasi zen jardun horiek izendatzeko. ■